

Ebazpena: R022/2023

Espedientea: 62/2022 eta 66/2022 metatua

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

WSAk Bizkaiko Foru Aldundiaren (aurrerantzean, BFA) eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkei buruz, zeinen helburua baita zergapekoaren 2021. eta 2022. urteetako BEZaren ordainarazpen-eskumena zehaztea. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari dira, 62/2022 eta 66/2022 espediente-zenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- WSA egoitza Frantzia duen sozietate bat da, eta balio erantsiaren gaineko zerga aplikatzen den lurraldean jarduten du, establezimendu iraunkorrik gabe.

WSAk WISA filialaren altzairuzko granailaren ekoizpen guztia erosten du (% 100eko partaidetza du), eta Balmasedako (Bizkaia) biltegi batean uzten du.

Salgai hori kanpora (Balmasedan abiapuntua duten esportazioak eta Europar Batasunaren barruko entregak) eta WISAra bertara saltzen da; beraz, eragiketen % 100 Bizkaian egiten dira.

2.- 2020ko uztailaren 30ean, WSAk 036 eredua aurkeztu zuen BFAn, BEZari buruzko betebeharretan alta emanda eta Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan alta eskatuta. BFAk erantzun zion ezen, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren ordainarazpen-eskumena itunduta ez dagoenez, Estatuari dagokiola. Ebazpen horri berraztertzeke errekurtsua jarri zitzaion.

3.- 2020ko irailaren 14an, WSAk alta eskatu zuen ZAEAn, eta Hileko Itzulketaren Erregistroan sartzeko galdegin zuen. ZAEAk 2020ko abenduaren 11n eman zion alta.

4.- 2021eko urtarrilaren 28an, zergapekoak 2020ko laugarren hiruhilekoko autolikidazioa aurkeztu zuen (303 eredua) 1.257.109,38 euroko itzulketa-eskaerarekin, baina ZAEAk ez zuen itzulketa hori onartu, ordainarazteko eskumena zuen administrazioa BFA zela iritzita. Hori dela eta, WSAk 2020ko abenduaren 31n metatutako saldoa itzultzeko eskatu zion BFARI, eta aldundi horrek ere ez zuen itzulketa bere gain hartu. 2022ko otsailaren 21ean, zergapekoak planteatutako gatazkaren jakinarazpena aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta BFAk amore eman ondoren, Arbitraje Batzordeak gatazka artxibatzea erabaki zuen, BFAk bere gain hartu zuelako WSA SARI bidegabeki jasanarazitako BEZa itzultzeko eskumena.

5.- 2021. urtean, WSAk BEZaren ereduak aurkeztu zituen, eta haien zenbatekoa 5.514.264,58 eurokoa izan zen 2021. urte osoan.

6.- 2022ko martxoaren 10ean, ZAEAk WSARI jakinarazi zion BEZaren 2021eko ekitaldiko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak hasi zituela. Jarduketa horiek

ZAEAREN Probintzia Ordezkaritzaren Eskualdeko Ikuskaritza Bulegoaren 2022ko ekainaren 27ko aktarekin amaitu ziren, eta akta horretan WSARI ukatu egin zitzaion 2021eko BEZAREN kuoten itzulketa, 2021eko BEZA ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumena zuen administrazioa BFA zela iritzita.

7.- 2022ko uztailaren 21ean, WSAk 62/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazka jakinarazi zion Arbitraje Batzordeari.

8.- 2022. urtean, WSAk BEZAREN ereduak aurkeztu zituen, eta horien zenbatekoa 802.054,16 eurokoa izan zen, urte horretako urtarrilean eta otsailean itzuli beharreko kuotekin bat etorritik.

9.- 2022ko abuztuaren 1ean, ZAEAK behin-behineko likidazio bana eman zuen, eta WSARI ukatu egin zitzaion 2022ko urtarrileko eta otsaileko BEZAREN kuoten itzulketa.

10.- 2022ko abuztuaren 4an, WSAk 66/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazka jakinarazi zion Arbitraje Batzordeari.

11.- Arbitraje Batzordearen 2022ko irailaren 13ko Erabakiaren bidez, metatu egin ziren bi gatazkak. Prozedura arruntaren bidez izapidetu dira, eta, beraz, bete egin da administrazioek alegazioak egin eta froga eta dokumentu egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea.

12.- 2022ko abenduaren 14an, BFAk amore eman eta, ondorioz, 2021. eta 2022. urteetako BEZA ordainarazteko eskumena onartu du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak dauka gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, artikuluko horrek eginkizun hauek esleitzen dizkio:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuaren aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluko igorpenari jarraikiz, eta hauxe dio:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Zergapekoaren jakinarazpenaren bidez automatikoki planteatutako gatazka egokia da, EIABaren 13.5 artikuluan xedatutakoaren arabera; honako hau dio:

Beste kasu batzuetan, ezein administraziok bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administraziotatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da tributu-betebeharpeko berak inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin. Hilabeteko epea izango du horretarako, artikuluko honen 2. paragrafoko laugarren lerrokadan aipatzen den eskumengabetasun-aitorpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Era berean, baldin eta administrazioen artean eskumengabetasun-aitorpenik egon ez bada, hiru hilabeteko epea izango du tributu-betebeharpekoak jakinarazpen hori egiteko, administrazio ezberdinei egin zizkien eskaerak ez onartutakotzat hartu daitezkeen egunetik kontatzen hasita.

3.- BFari 2022ko azaroaren 17an jakinarazi zitzaion gatazkaren planteamendu automatikoa, eta 2022ko abenduaren 14an eman zuen amore; beraz, EIABaren 13.5 artikulua azken apartatuak Administrazioek eskumena onartzeko ezartzen dituen lau hilabeteen barruan eman zuen amore:

Hala eta guztiz ere, gatazka ez da izapidetuko baldin eta bi administrazioetatik edozeinek eskumena onartzen badu lau hilabeteko epean, araudi honen 15.1 artikulua azken lerrokadan aurreikusita dagoen aurkezpen automatikoaren jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita.

Ondorioz, egokia da gatazka artxibatzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- 62/2022 eta 66/2022 espediente-zenbakiak dituzten gatazkek artxibatzea, BFAk bere gain hartu duelako WSAr jasanarazitako BEZa itzultzeko eskumena.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta WSAr.